

Arriotea Etxebarrian, 77

Lan hau, Etxebarriako arrioteari buruz berri eman duten sei pertsona hauei eskeintzen diet:


- Burundarena Iriondo, José Manuel
- Gandiaga Agirregomezkorta, María
- Goenaga Iriondo, Joan Mari
- Guenaga Zelaia, Dolores
- Olabe Gandiaga, María
- Oregi Maillea, Paula

Igande goiz bat zen. Ondarroatik urten ginen, berebilez, nere bi lagun nafartarrak eta hirurok. Aurreragoko egun batean jakin nuen ekainaren 8an «Arriotea» zegoela Etxebarrian¹, eta jakin orduko bertaino heltzeko erabakia hartu nuen inoiz ikusi gabe bait nengoen holako ikuskizunik eta gainera euskal etnologizetasunaz josia izan bait naiz aspalditik. Aspalditik! Bai! Haur nintzelarik, gurasoengatik jaso nuen Arriotearen lehen berria, gure herritar batzuen arriotearen berri alegia, neuk ezagutzen nituen senar-emazte batzuen. Eta gaztaroan sartu eta berehala, irakurleak hain ezaguna duen Barandiaran Joxe Miel jaunarekin hasi nintzen euskal etnologiaren lehen zerzeladak, hau da, sistema baten arabera, ikusten eta aztertzen. Euskal etnologiaren lehen sistematizatzailea bera nere lehen etnologiurratzaile izatea, suertearen gauza bat besterik ez zen izan, zeren nola etnologolari ospatsua hala neu nintzen haur hura herri bereko semeak gara, hauzo berean jaiok. Ataungo Gregorio Saindutarrak!

Duela hamar bat urte, eguzkia izkutatu eta aski beranduago, bazkaloste osoa eta arratsalde zati eder bat Arrateta harrobi inguruko haiztulo batean azternategia zulatzen ibiliz gero, Barandiaran jauna eta biok etxerako bidean gindoazen. Herri bereko hauzo batetik besterako ginen autobusaren zain, eta gure hauzotar ere zen Arin Joan, Ataungo Martin Sainduko bikario, eta Barandiaran Joxe Miel berbetan ari zirenetako batean, Arin Joanek, berau ere Ataungo ohitura zaharren biltzaile amorratua eta ezaguna, Barandianeri honen antzera hauxe esan zion: «Gu, hi eta ni eta gure sasoiko besteak, zaharrak gaituk, eta gureak laster egingo dik. Eta hain xuxen ere gure be-

¹ Etxebarriak 1.000 biztanle inguru dauzka. Lea Artibai eskualdean dago, Gipuzkoarekin muga egiten duelarik. Oraintsu arte baserria zen ogibide nagusia, egun bertan egin dituzten lantegiak direlarik.

APALATEGI BEGIRISTAIN, JOXE MARTIN



egile: M. Pilar Munozguren

launaldiak dakizanak ohitura zaharrez eta oraindik jasogabeak daudenak, denak galdu egingo dituk, zeren gazteek entzun digutena, askotan hain gutxi hitzegin zaielarik, ez ditek buruan gordetzeko guk bezalako errextasunik eta berehala ahaztu egiten dituk esandako guztiaz. Hau tristea duk aizak! —Bai! Benetan tristea ere! erantzun zion Barandiaranek bere lankideari— Horregatik, bermintzazitzaion Arin jauna Barandiaran jaunari, guk, zaharrok daki-gun guztia korrikan eta presakan idatzi behar genduke, zeren idatzitakoa nahiz gaztek ahaztu hor geldituko duk betirako». Ni ixilik nengoen denbora osoan, bainan han entzundakoa ongi buruan gorde nuen eta neure buruari promes bat egin ere, hots, egun hortan bi herkideengandik jasotakoa inoiz idatziko nuela, euskal etnologiaz bereziki eta edonongo herrietnologiaz jeneralki arduratzen direnek ikas zezaten zein ardura beltzak kezkatzen zituen ia larogei urteko euskaletnologi ikertzaile haik, Arin Joan harrez gero urte batzutara gure ondotik joan zizaigularik, eta Barandiaran Joxe Mielek, larogei eta zazpi urtegaz, bere lanari jarraitzen diolarik.

Bizitzaren gohiengo partean daudenak eta beren segidako batzuek ere bizi eta egin izan dute gaur gazteok zenbait euskal bizikera zaharraz bakarrik entzuten duguna edo ikusten duguna han-hemen eta noizpeinka. Eta ohiturak bizitzen ez diren unetik aurrera galtzen joaten dira, beren lekuko beste batzuk hartzen direlarik. Beraz, ohitura bat gehiago ez erabiltzeak hilzorian jartzen du delako ohitura. Are, zaharraren ordeztze datorren berriak ere zaharragoaren deserabiltzeta ekartzen du. Baina, bizikera baten desageztzea eta beste baten agertzea ez da beti izaten erabatekoa. Ondartza eta itsasoa non hasten diren ezin esan daiteken antzera ezin da ere esan ohitura edo bizikera zahar bat nora arte eta ohitura edo bizikera berri bat nora arte. Eta, halere, ohitura bat noiz galdua dagoen badakigu. Betirako galdua? 77ko ekainaren 8an, igandez, Etxebarriako «A r r i o t e a» euskal ohitura zahar eta galdu baten agerpena izan zen. Galdua zena zentzu herstu batean, gehiago ezkonberriek ez bait dute egiten arriotea bera, berragertu egin da. Zaharra zena, zentzu herstu batean, berriztatu egin da. Beraz, «a r r i o t e a» hortan bada betirako galdu den zerbait eta oraindik ere irauten duen beste zerbait. Non dago muga? Muga bat ala muga asko?

-I- ARRIOTEGERTAKETA

Arriotegetaketari buruz zenbait puntu emango da arriotelektutze gisara:

1. URTEROKO GAZTEEN EGUNA

Jaiegun hau lehendik dator, eta «Congregación de San Luis» delakoaren jai bat zen, herriko gazteen jai bat alegia.

Duela 12 urte, jaieguna ospatzeko era aldatu egiten da. Aldaketa honen egilea herriko etorri berri den apeiz bat da, «Don Joan» bere izena, orain urte bi herritik aldegin zuelarik.

«Don Joan» abadearekin, abesbatz bat sortzen da herritarren artean, bilera batzuk sozioerligiozko gaiez antolatzen dira, eta, lehen esan bezala, urteroko gazteen eguna bera ere beste modu batera ospatzen hasten da, lehengo moduko gauza batzuk gordez eta modu berriko bestatzuk sartuz.

Jaiegun hau «San Luis Gonzaga» egunaren inguruko igande batean beti ospatzen da, egun bat bakarrik izaten delarik. Bertan, hamairu urtetik gorako gaztetxo eta gazte guztiak parte hartzen dute, herritar guztiak jaiegunera etorritz.

2. 77KO GAZTEEN EGUNA

1. Helburua

Aurtengo gazteen egunerako beste urtetako gazteen egunetako helburuetatik kanpo, honako helburu hau ipini zen: delako jaiegun hori guztiz herritarrentzat herritarrekin egitea, zeren joan diren azken urteotan kanpotar asko etortzen zelako nahiz entzule lez nahiz partehartzaile lez. Adibidez, partehartzaitariko batzuk trikitixalariak ziren, eta aurtan herritarrak izan dira².

Zergatik, ordea, herritarrentzat herritarrekin gazteen eguna antolatu? Etxebarria herri tipi bat izan da oraintxe arte. Gaur egun, nahiz txikia izan, asko gehitu da biztanle, etxeberri eta lantegi aldetik. Herriak aldaketa nagusi bat sumatu du eta sumatzen doa. Gazteak, beren aldetik, ibilkariagoak bilakatu dira. Badirudi, herria lehiotik kanpora bota dela. Baina gazteek,

² Halere, aurreko usarioagatik eta aurtengo ospakizun bereziagatik, arriotea hain zuzen, kanpotar anitz bildu zen.

herri osoarekin, etxekoa berratonduz kanpoko etxera nahi dute. Horre-
gatik herritarrentzat herritarrekin gazteen eguna.

2. Bilerak. Zein ospakizunak. Partehartzaileak

Jaieguna baino hilabete bi aurretik, herritar neskatil hiru batzen ziren
astero. Haseran Maria Eli Arrieta, Maria Asun Arrieta eta Arrate Arrieta.
Hauek herriko abadearekin berbeginez, honek, Don Bernardino, arrioter-
kusketa bat egiteko ideia eskeini zien. Esan eta egin!

Biltokia eskoletan dago. Eskola hauetatik izena besterik ez da gelditzen,
orain hiru urtez gero itxiak daudelako, haurrak alboko herri batera joaten
direlarik, Markinara. Eskoletan dute beren biltokia herriko gazteek, bertan
biltzen da Uztargi dantza, antzerki eta abar taldea³.

Arriotebertaketa lanari ekin zitzaionean herritar guztiak bildu ziren hiru
neskatil bultzatzaile hoiekin batera. Behin eta berriz azpimarkatu behar da
hau: herriko gaztetxo, gazte, sasoiko eta zaharrek antolatu dutela a r r i o t e a,
batzuek arrioterako tresnak utziz eta bestatzuk lanerako prestatuz.

3. Arrioteberriemalleak

Herriko pertsona zaharrendik zuzenki jaso da a r r i o t e a nola
egiten zen lehen-lehena. Are, arrioteberriemalletariko gehienek beren arriotea
egin zuten ezkontzeko. Honela, behin eta berriz, lehengo ohitura bat galdu
eta gorde egin dela argi eta garbi frogatzen da. Eten bat, eta oso nagusia,
gertatu da gure aiton-amonen eta gure artean, baina dena ez da galdu aldatu
baizik, aldaketa oso inportantea izanik zentzu herstu batetan.

Arrioteberriemaile hauen izen deiturak eta beste zenbait datu esaten
dira ondoren: Ordena, zaharrenetik gazteagoraino izango da:

3 UZTARGI orain 4 urte sortu zen dantza eta antzerkia bereziki lantzeko gaz-
tetxo eta gaztekin. Lehen aipatu den "Don Joan" herriabadeak sozioerligiozko bilerak
gainera euskal alfabetatzen jardun zen urte batean, orain hamar urte baino gutxiago,
hiztegia eta irakurketa eta aditza irakatsiz. Joan den ikastaroan, 76/77, herriko ande-
reño gazte batek, María Pilar Muniozguren, alfabetatzen klaseak eman zituen berriz,
Alfabetatzen I liburua jarraituz metodo lez. Eta irakurketa berezitarako Zeruko Argia
izan zuten, Anaitasuna baino ulerterrazagoa gertatzen zitzaielako. Haseran, 13 lagun
bildu arren, Gabonetan desegindu egin zen azterketa akademiko eta bilera politikoe-
gatik.

a) ARRIOTEINFORMATZAILEAK

APALATEGI BEGIRISTAIN, JOXE MARTIN

<i>Etxebitza</i>	<i>Deiturak</i>	<i>Izena</i>	<i>Jaioterria</i>	<i>Urteak</i>	<i>Ezkon- dua</i>	<i>Ezkon- gabea</i>
1. Astazulo (baserri)	Olabe Gandiaga	Maria	Etxebarria	72		x
2. Mañuzke (baserri)	Burundarena Iriondo	Jose Manuel	Etxebarria	76		x
3. Etxebarrixek ⁴	Goenaga Iriondo	Joan Mari	Etxebarria	56	x	
4. Basabe: «Rubi- xonekue» (baserri)	Oregi Maillea	Paula	Barinaga ⁵	64	x	
5. Basabe: «Jose- nekue» (baserri)	Guenaga Zelaia	Dolores	Etxebarria	74	x	
6. Agarre (baserri)	Gandiaga Agirrego- mezhorta	Maria	Etxebarria	40	x	

(4) Barinagarako bidea hartzen den bidegurutze inguruan oraintsu egindako etxeberririk dira, jendeak "Etxebarrixek" izenez deitzen dituelarik.

(5) Azkenengo arriotea Etxebarrian heurrek egin zuen, duela 35 urte.

b) BERE SENARRA ALA EMAZTEA

ARRIOTEA ETXEBARRIAN, 77

	<i>Deiturak</i>	<i>Izena</i>	<i>Jaioterria</i>	<i>Urteak</i>	<i>Ezkondu ziren</i>	<i>Arriotea egin zuten</i>	<i>Semeak</i>	<i>Alabak</i>
1.								
2.								
3.	Totorikaguena Arrieta	Margarita	Etxebarria	55	1945	Ez	3	2
4.	Baskaran Etxebarrieta	Txomin	Etxebarria	65	1942	Bai ⁵	1	1
5.	Barruetabeña Ibarzabal	Jose	Etxebarria	79	1924	Bai		2
6.	Arrieta Elordi ⁶	Luis	Etxebarria	44	1965	Ez	1	1

(6) Aurten hil zen.

4. Arrioterako Tresnak eta Beste

Arrioterako tresnak Etxebarriako 65 bat baserrietan eta 10 bat kalekoetxetan bildu dira. Gainera, Markinako hauzo batetako lau baserrian tresna galdezka ibili zen, hoietako bitan tresna batzuk lortuz. Delako hauzoaren izena Ittureta da.

Animaliak ere herrian aurkitu ziren.

Tresnak Bekoetxeberri deituriko etxetik gertu pilatu ziren, bertatik urtengo baitzen arrioterakusketa.

5. Egitarau Osoa

Gazteen eguneko egitarau osoa hau izan zen:

11etan Meza: gazteentzat

12etan Arrioterakusketa

14,30etan Bazkaria gazteentzat: udaletxeko arkupetan

19etan Antzerkia: gazteek egina Eskoletan edo Uztargi bilokian. Antzerkia: «Ni naiz kapitan piloto», egile Zubikarai Agustin.

-II- ARRIOTERAKUSKETA

1. TRESNAK

Ondoan emango da arrioterakusketako tresna guztien zerrenda bat:

ZER		GURDI	NOLAKOA	ZENBAT	
<u><i>Etxebarriako eraz</i></u>			<u><i>Etxebarriako eraz</i></u>		
	<i>Bakarra</i>	<i>Anitz</i>			
1	Akulue	Akuluek	Itzaiñek	Egurrezkue	2
	Alfonbrie	Alfonbrak	1.	Lanie	1
	Armaixue	Armaixuek	2.	Egurrezkue (gaztiñie)	1
	Armaizie	Armaizak	2.	Brontzekue	3
	Artzie	Artzak	2.	Zumitzekue	1
	Atxurre	Atxurrek	2.	Egurrezkue eta burdiñie	1
	Auspue	Auspuek	2.	Narru eta egurre	1
	Azuelie	Azuelak	2.	Egurre eta burdiñie	1
	Baie	Baixek	2.	Egurre eta pitie	1
10	Barrikie	Barrikak	2.	Egurrezkue eta burdiñie	1
	Behizapie	Behizapak	Behixek	Narrue eta lanie	4
	Belauskixe	Belauskixek	2.	Egurrezkue	1
	Bolanderie	Bolanderak	Bolanderabota- taillak	Asko	
	Botie	Botak	Ardoemotaillek	Narruzkue	2
	Burdixe	Burdixek		Egurrezkue	2
	Burrukoa	Burrukoak	1.	Ollo lomezkue	1
	Buruko narrue	Buruko narruek	Behixek	Ardi narruzkue	2
	Buztarrixe	Buztarrixek	Behixek	Egurrezkue	2
				27	

	ZER	GURDI	NOLAKOA	ZENBAT	
	<u><i>Etxebarriako eraz</i></u>		<u><i>Etxebarriako eraz</i></u>		
	<i>Bakarra</i>	<i>Anitz</i>			
20	Espillue	Espilluek	2.	Markue egurrezkue	2
	Erresaixue	Erresaixuek	2.	Egurrezkue	1
	Galbaie	Galbaiek	2.	Egurrezkue eta alambrezkue	1
	Galezkobarie	Galezkobarak	2.	Egurrezkue	1
	Gardie	Gardak	2.	Egurrezkue eta burdinezkue	2
	Gorue	Goruek	1.	Egurrezkue	1
	Imillaune	Imillaunek	2.	Egurrezkue	1
	Imiñie	Imiñak	2.	Egurrezkue	1
	Izerie	Izerak	1.	Telie	12
	Kafeontzixe	Kafeontzixek	Otzaretan	Portzelanazkuek	Bi: handi eta tipiak
30	Kafeterie	Kafeterak	Otzaretan	Metala kaskarilla zurixaz	2
	Kaixolie (etxe itxu- rako)	Kaixolak	Astogaiñean	Egurrezkue	1
	Kamadarra (ohe batenak)	Kamadarrak	1.	Egurrezkue	2
	Kandelera	Kandelerak	Otzaretan	Brontzekuek	2
					29

ZER		GURDI	NOLAKOA	ZENBAT
<u><i>Etxebarriako eraz</i></u>			<u><i>Etxebarriako eraz</i></u>	
<i>Bakarra</i>	<i>Anitz</i>			
Kobregaldarie	Kobregaldarak	Eskuetan eta 2.	Kobrezkue	4
Koltxillie	Koltxillak	1.	Telie eta mantie	1
Koltxoie	Koltxoiek	1.	Lanazkue	1
Komadie	Komadak	1.	Egurrezkue	1
Kopeleta	Kopeletak	2.	Zumitezkie	1
Kuadrue	Kuadruek	Kaltzarpien	Markue egurrezkue	5
Kursulue	Kursuluek	2.	Metalezkue	1
40 Kurutzie	Kurutzak	1.	Egurrezkue	1
Labadora	Labadorak	1.	Egurrezkue eta portzelana	1
Labatibie	Labatibak	2.	Gomazkue eta kaskarazkue	2
Laixie	Laixak	2.	Burdiñie eta egurrezkue	2
Lapikue	Lapikuek	2.	Metala kaskarilliaz	1
Latza	Latzak	2.	Burdiñezkue	1
Makiñie	Makiñak	2.	Egurre eta metala	1
Mantela	Mantelak	Otzaretan	Harizkue	3
Mantie	Mantak	1.	Lanazkue	1
Mantoie	Mantoiek	1.	Lanazkue	1
				28

ZER		GURDI	NOLAKOA	ZENBAT	
<u>Etxebarriako eraz</u>			<u>Etxebarriako eraz</u>		
	<i>Bakarra</i>				
	<i>Anitz</i>				
50	Matarraskie	Matarraskak	2.	Metalezkue	1
	Mesillie	Mesillak	1.	Egurrezkue	1
	Mollie	Mollak (ohearenak)	1.		1
	Ontzixe	Ontzixek (kristalezko)	Otzaretan	Kristalezkue	Bat osoa
	Ontzixe	Ontzixek (lurrezko)	Kubanutan	Lurrezkue:	
	pitxerra	pitxerrak			2
	lapikue (koipie gordeteko)	lapikuek			3
	lapikue	lapikuek			3
	Orañela	Orañelak	2.	Kaskarillazkue (zurixe)	1
	Otzarie	Otzarak	Eskuetan	Zumitzezkie	9
	Prailekatillue	Prailekatilluek	Otzaretan	Lurrezkue	3 ezberdinak
	Plantxie	Plantxak	2.	Metalezkue	1
	iketzezkie				
	txapakue				2
				27	

ZER		GURDI	NOLAKOA	ZENBAT
<u><i>Etxebarriako eraz</i></u>			<u><i>Etxebarriako eraz</i></u>	
	<i>Bakarra</i>			
	<i>Anitz</i>			
	Platera	Otzaretan	Portzelazkue	Bat osoa
60	Pixue	2.	Metalezkue	1
	Sillie (eleixako)	1.	Egurre eta zumitzezkue	1
	Sillie	2.	Zumitzezkue	2
	Sobrekamie	1.	Arizkue	2
	Soñue (2 ilerako)	2.		1
	Tapetie	Otzaretan	Arizkue	12
	Toallie	1.	Arizkue	6
	Treberie	2.	Burdiñezkue	1
	Txiliñerie	Behixek	Narru eta burdiñie	4
69	Txokolaterie	Otzaretan	Metala kaskarrillazkue (gorrixek)	1
				31
			TOTALA	142

2. ANIMALIAK

Ondoren emango da arrioterakusketako animala guztien zerrenda:

ZER		ZENBAT
<u><i>Etxebarriako eraz</i></u>		
<i>Bakarra</i>	<i>Anitz</i>	
Auntze	Auntzek	1
Antxumie	Antxumak	2
Astue	Astuek	2
Behixe	Behixek	4
Ollo lokie	Ollo lokak	1
Tittie	Tittak	5
Usue	Usuek	2
		17

3. JANTZIAK

Pertsonaia bakoitzaren jantzien berri ematen da segidan:

BOLANDERABOTATZAILEAK:

Kirruzko alkondara, praka milraiak, txapel beltza, gerriko beltza, abarka beltza eta lanazko galtzak.

ITZAIÑEK:

Alkondara zuria, praka milraiak, txalekoa, txapel beltza, gerriko beltza, abarka narruzkoak, lanazko galtzak eta lepoko pañueloa maunezkoa.

GURDIZAINZAILEAK:

Alkondara zuria, praka milraiak, txapel beltza, gerriko beltza, abarka beltzak, lanazko galtzak eta brus milraiak.

EZKONBERRIAK:

Neskea:

Sedazko soiñeko beltza eta enkajezko parpallea, belarritakoak, takoi findun oinetako beltzak.

Mutila:

Traje beltza, txalekoa, oinetako beltzak, txapel beltza.

ABADEA:

Sotana beltza eta kapela beltza.

JUEZA GIZONA:

Traje beltza, txalekoa, alkondara kirruzkua, kapela beltza eta pipa ez-painetan.

JUEZAREN EMAZTEA:

Soiñeko luzexamar bat (marroia eta zurizka). Oinetako puntadunak, galtza beltzak, belarritakoak.

ALARGUNAK:

1goa:

Soiñeko beltza, buruko pañueloa, abarketa zuriak, galtza beltza, belarritakoak.

2goa:

Traje beltza, alkondara zuri puntilladuna, belarritakoak, buruan muñua, abarketa zuriak.

OTZARADUNAK:

Gona beltzak edo urdiñak arraia zurikin eta alkondara zuria, galtza beltzak eta abarketa zuriak. Batzuek lepoko pañuelo koloredunak.

SOIÑUJOTZAILEAK:

Alkondara zuria eta gona urdiña eta zuri, galtza beltza eta abarketa zuriak.

PANDEROJOTZAILEAK:

Soiñeko beltza eta zuria (motaduna), buruko pañueloa, abarketak eta galtzak (amona jantzita).

ASTOERAMATZAILEAK:

Mutila:

Alkondara zuria, praka milraiak, abarka beltzak, gerriko beltza, galtza eta txapel beltzak eta brus milraia.

Neskatila:

Gona, buruko pañuelo zuria (amona jantzita), abarketa, galtzak.

AUNTZAIN

KUADROERAMALE

ESPILUEROALE

GAZTE MULTZOA

ARDOEMAILE:

Mutilak:

Alkondara zuria edo kirruzkoa, praka milraia, batzuek txalekoa eta bestatzuek blusa, abarka narruzkuek edo belzak, gerriko beltza, txapel beltza.

Neskak:

Soiñeko beltzak, urdiña eta zuria, edo beltza eta zuria, edo marroia eta zuria, gona beltza eta alkondara zuria, gona urdiñe eta zuria eta alkondara zuria, abarka eta galtza beltzak edo abarketa zuriak, batzuek buruko pañueloa eta bestebatzuek ez, illea lehengo erara orraztuta.

4. PERTSONAIK LERROKA

Ondoan emango da arrioterakusketako pertsonaien zerrenda. Zerrendaren ordena edo lerrotzeak herriko kaletan pertsonaiak eduki zuten ordena berbera adierazten du.

LERROA	PERTSONAIA	Gizon	Andra	Zenbat
	Etxebarriako eraz			
1.	Bolanderabotataillak	2		2
2.	1. Itzaiñe, 1. burdixegaz	1		1
3.	1. Burdizaintzaileak	2		2
4.	2. Itzaiñe. 2. burdixegaz	1		1
5.	2. Burdizaintzaileak	2		2
6.	Ezkonbarrixek	1	1	2
7.	Abadie, Juesa, eta bere andrie	2	1	3
8.	Ama bixek (alargunek)		2	2
9.	1. Otzaradunek		3	3
10.	2. Otzaradunek		3	3
11.	3. Otzaradunek	3	2	5
12.	Soiñojotailliek		2	2
	Panderojotaillie ⁷		1	1

(7) Arrioterakusketan parte hartu zuen edadeko pertsonaia bakarra eta aldi berean arrioteinformatrailetariko bat Oregi Maille a Paula.

LERROA	PERTSONAIA	Gizon	Andra	Zenbat
13.	Astoerutaille bixek	1	1	2
14.	Auntz-zaintzaillie		1	1
15.	1. Kuadruerutailak eta espilluerutailak		4	4
16.	2. KUADRUERUTAILLak eta espilluerutailak		4	4
17.	Gazte multzo bat	10	3	13
		25	28	53

5. ARRIOTERASKUSKETAIBILALDIA

Ikus planoa. Bertan ematen da Etxebarrian nondik zehar ibili zen arrioterakusketa.

Orain, arrioterakusketa ibilal diko puntu nagusienak aipatuko dira:

1. Urtera: Bekoetxeberri izeneko baserriaren ondoko etxeberrietan hasera eman zitzaion arrioterakusketaibilaldiari (a).
2. Lehen geldiune: Hirubide izeneko tabernetxe parean. Hemen arrioterakusketaibilaldiak gira ere egin zuen lehengo bidera itzuliz eta bertan berribiliz aldi batean, gero herrierdiruntz zuzenduz (b).
3. Bigarren geldiune: Peruneko baserri parean. Hemen arrioterakusketaibilaldiak beste gira bat ere egin zuen lehengo bidera itzuliz eta bertan berribiliz aldi batean, gero herrielizaruntz zuzenduz (d).
4. Eskolahortuari buelta eman zion, hilerribidetik sartuz eta eleizasarrerako atetik igaroz herri bide nagusira berhelduz (e).
5. Hirugarren geldiune: Txomin jatetxeurrean, bertakoa luzena izan zelarrik (f).
6. Azkenik, herrifrontoian sartu zen arrioterakusketaibilaldia, bertan amaituz.

6. ARRIOTERAKUSKETAIBILALDIAREN AZKEN PARTEA EDO FRONTOIAN

1. Sartu eta segidan bi buelta egin zituen frontoi osoan. Hemen ederki entzuten zen gurdien soñua.
2. Arrioteraskusketako gauzen atonketa, frontoibehegainenan ipini zirelarik denak. Hemen ikus zitekeen, lehen ez bezala, arrioterakusketako hainbat eta hainbat gauza.
3. Ondoren, arrioterakusketako «ama alargun bixetariko» batek irakurketa bat egin zuen. Honen izenburua: «Ezkontzako oitura zaarra : arriotea». Ikus anexo 1.
4. Arrioterakusketako mutil birek bertsoak irakurri zituzten, arrioteari buruzkoak alegia. Ikus anexo 2: «Bertso barriak: Lege zaharreko eskontzak».
5. Arrioterakusketako txistulariaren airera mutilen aurrezku dantzatu zuten zortzi mutilek eta zortzi neskatilek.
6. Bigarren bertsoirakurketa saioa. Oraingoan «Bertso zaharrak» irakurri zituzten. Anexo 3.
7. Azkenik, trikitilarixek arrioterakusketako eta entzule-ikusle guztientzako soñudantza jo zuten.

.....eta
azkena

(egile: APALATEGI BEGIRISTAIN, Joxe Martin)

Laguntzaileak:

Arrieta, Mari Asun
Arrieta, Arrate
Arrieta, Mari Eli
Bustindui, Mari Karmen
Muniozguren, Mari Pilar

Etxebarrian. 1977ko irailaren 14an

ANEXO 1

EZKONTZAKO OITURA ZAARRA-ARRIOTEA

Neska mutilak erriko jaietan batzen ziran erromerietan. (San Andres eta Santixauetan)

An ezagutzen eben alkar, baina ezkontzak, geien baten gurasoek eratuak izaten ziran. Batez ere senargaia maiorazkoa bazan, kontuak izaten ziran andre egoki bat berentzako topetan.

Aukeratu eta gero, zelako dotea edo arrioa izango eben jakin nai izaten zan.

Eukenak baziran, bost bat burdi dote emoten eutsen.

Geienetan, eguenean goizean goiz ezkontzen ziran eta jarraian dia kanpuetara sapatuta arte. Sapatuan eltzen zirenean arrio-eroatea izaten zan eta illuntze beranduan edo gauean afari eder bat gau guztiko jaiaz.

Lehenengo burdiak, ohe barriak euren ardi-ulezko koltxoekin eroaten zituan: oillo-lumaz egindako burkoak be han joaten ziran.

Bigarren burdian, erropero eder bat eroaten eben: geienetan hiru atekoa izaten zan, intxaur edo gaztaina olez egindakoa. An eroaten zituan emazteak bere jantzi kutunenak, baita soiñeko eta beste apaingarri asko be.

Hirugarren burdiak, kutxa eder bat eroango eban eunezko edo kirru ederrezko izeraz beteta euren alkatonak aldian zituela, maitasunez emaztegaiak egindakoak, baita komoda gaiñeko zapi batzuk be. Kirru horreek etxean irunda egozan.

Laugarren burdiak, beste kutxa bat eroango eban gariz beteta, baita soloan lan egiteko tresna asko be. Euren artean laixak, atxurrak, eskobara, igitai, sarda eta beste batzuk.

Azkenengo burdiak arto-babak eroaten zituan. Burdi bakoitzak txirrin-dadak jotzen eroaten zituan bere burpillak. Bostak joko zituen soiñu desbar-diñak, batak baiño besteak politagoak.

Burdiaren espatan eroaten eben gorua, ardi-uleaz ipiñita, ardatza alboan ebala, iruteko gertautu: gardak be han joaten ziran.

Burdi oneek eroaten zituen beiak be, ondo apainduta egoten ziran: buruko ardi-ulezko narru ederra zuria eta garbia: saman txilinerak, baita zapa barri batzuk be olako egunetarako aukeratuta eukiten zituenak.

Emaztegaiak aukeratzen zituan, bere lagunaren artean, damarik edertxuenak eta sendotxuenak, zimeretan ontzi gauza guztiak eroateko.

Bost bei buzterri oneek, ondo apainduta euren traste guztiakin jarten ziran bidean, senarraren etxera joateko.

Han joango ziran emaztearen senideak be, baita euren artean soiñujo-taile bat be, gure Euskalerriko arin-arin eta trikitixa joten, baita beste gizonetzko bate be izango zan, bolanderak eta txupinazoak botaten. Horrela joaten ziran emaztearen etxetik senarraren etxera. Han egongo ziran aparti ederra gertatuta senarraren alderdikoak eztegua ospatzeko.

—Orain, arriotearei buruz egindako bertsoak, papeletik abestuta entzungo dozuez.

—Hau gehienetan lehen esan dodan bezela gertatzen zen, baina baziran dia kanpuetan izan eta itzulieran, gerasoek galoso egiten eutsen atxakiagaz, ospatzen ez ziren ezkontzak.

Orreri buruz ere badagoz bertso batzuk.

—Ondoren aurrezkua izango dogu eta azkenean trikitixa.

—Arratsaldean «Kapitan piloto» izena dauen antzerkia izango dogu. Eskoletan eta zazpiretan.

(egile: MUNIOZGUREN, María Pilar)

ANEXO 2

BERTSO BARRIAK

Lege zaharreko eskontzak

- | | |
|---|--|
| 1) Bertso soiñuan azaldu nai det Euskalerriko oitura, gaurko bizitzak lengoarekin agertzen dauan lotura. Unetxo baten goazen guztiok lengo eskontzen mundura, oitura aiek barrizaturik euskaldun zarren modura. | 3) Neska polit bat ezautu nuen Etxebarriko enparantzan. San Andres jaiak pasa nituen lagun aren esperantzan. Lore usaintsu aren ondoan egin nai nuen nik dantzan. Baiña oraindik ikusten nuen bildurrez eta zalantzan. |
| 2) Aita ta ama ibiltzen ziran lenau eskontzak eratzen. Aien gustuaz ez ziran beti semeak pozik geratzen. Buztarri baten jarriagaitik ez ziran ondo girotzen. Goitik ezarri oi dan eskontzak ez du biotzik berotzen. | 4) Alako baten prestau zitzaidan. Orduan bai nire poza! Neskatxa arek merezi zuen lagun on baten babesa. Ondo konpontzen giñala eta bion arteko promesa, baiña guraso zarren jokoak desegin zuen amesa. |




Foto 1.—“Burd’xe”.
Egilea: Don Bernardino Barrutia




Foto 2.—“Otzaradunek”.
Egilea: Don Bernardino Barrutia



Foto 3.—“Astoerutaille bixek”.
Egilea: Don Bernardino Barrutia



Foto 4.—Herriko frontoiau.
Egilea: Don Bernardino Barrutia



Foto 5.—Ama alargun bixetariko bat Erkontzako oitura Zaarra Arrioteaz irakurketa egiten.

Egilea: Don Bernardino Barrutia

ARRIOTEA ETXEBARRIAN, 77

- 5) Tratu bezela neurturik ondo
bata-bestean dirua,
prestatzen zuten guraso zarrak
ezkontzerako girua.
Oiñarri onez jarri nairikan
seme-alaben gerua,
ikusi bear zer izango dan:
inpreñu ala zerua.
- 6) Prestakizunak bukatu eta
urrengo ARRIOTEA,
burdi apaiñez kabi barrira
gauza danak jasotea.
Burdiak soiñu desberdiñean,
pausu alaian jendea:
orrela eramaten lenau
emaztegaien dotea.
- 7) Burdi bakoitza bete-beterik;
mai, aulki egurrezkoak,
gariz beteko kutsa ederrak,
guztiak itxurazkoak.
Alperrikorik ez dago ezer,
dan-danak bearrezkoak.
Jenero oiek merezi ditu
etxeko maiorazkoak.
- 8) Olakoa zan aien bizitza
eta aien ezteguak:
zoriona ta atsekabea,
pozak eta erneguak.
Lorez jantzirik udaberriak
ta tristurazko neguak,
egun batzuek itxusi eta
besteak politaguak.

ANEXO 3

BERTSO ZAHARRAK

Milla urte pasata
bederatzireun (bir)
aurten zaspigarrena,
broman pasa zagus.
Dama gazte polit bat
ustez neukan lagun,
gazte-gaztia zala
egña ezagus.
Mingaiñez alegria,
amorioz illun.

Zelestina daduka
dama orrek izena, (bir)
Aranon bertan jaio
ta an bizitzen dena,
Andres oneri kantak
artzen asi dena.
Bañan ez izan ba'litz
alaja zuzena.
Nik olan mendratzen det
merezi duena.

Eskontza zerratutzen
San Juan besperan (bir)
gabeko amaiketari
kanpuan itzetan.
Bidez azpiko aldetik
leku polita zan.
Aingeruak bezela
izketan ari zan.
Ni arront engaiñatu,
gazte zamarra izan.

Eskutikan elduta
asi zen esaten: (bir)
Andres, zuregandikan
ez naiz ni apartatzen!
Lore ederragorik
ez det nik ikusten.
Esposatu bitarte,
diberti gaitzen.
Jai bat señalatuta
Donostira guazen.

Etxetik Hernanira
juan giñan oñez (bir)
bidian itz potxola
ederrak esanez.
Donostira tranbia
noiz egoen galdez,
prantsezarekin igual
asitzen zen ingles.
Erderaz ere fuerte,
nai bape jakiñ ez.

Tranbia ortan sartuta
jo degu Donostin (bir).
Bulebarrera jua ta
pasiatzen asi.
Gero Bretxatik bueltan
kaliak ikusi.
Eskumeko besotik
ein zidan imurtxi.
Zapata pare on bat
bear niola erosi.

Zapata oiek artuta
baskaltzera fondan. (bir)
Galdezka: abaniko
almazena nun da?
Ura ere erosi nion
neskatxorri junda,
burua preskatzeko
izugarri ona.
Nere kontura orrek
pasatu du broma.

Gero dibersiua
musika ta guzti (bir).
Baltzian asi giñan
poliki-poliki.
Len ingles eta ainbeste
ortan e ba'daki.
Gero errefreskua
zerbeza eta guzti.
Andik aurrerakua,
guk bestek ez daki.

Urrengo egunian
jo degu Hernani (bir)
tranbian mano mano
begira alkarri.
An erosi nituen
sei pañuelo zuri,
agua koloniatik
beste botilla bi.
Orduan zapustu zan
nere biryiñ ori!

Santiagotan ziren
azkeneko planak (bir).
Zuzena okertzen du
ortarako danak.
Neska tranposa aren
orduko esanak:
Ez ziotela uzten
aitak eta amak.
An bukatzen zirela
ezkontza onen lanak.

Aranon jaiua naiz,
askok dakitena (bir),
ondo egin ta gaizki
pagatu nautena.
Igualak zerate
familia dena.
Zeletinak ez dauka
nik añako pena.
Ollinden bizitzen da.
Andres Mitxelena

RESUMEN

«ARRIOTEA» O UNA REPRESENTACION DEL MATRIMONIO
VASCO A LA ANTIGUA USANZA EN ETXEARRIA

El 8 de junio de 1977, por la fiesta anual del «Gazteen Eguna» o día de la juventud del pueblo, una representación del matrimonio vasco a la antigua usanza tuvo lugar en el pequeño pueblo vizcaíno y limítrofe con Guipúzcoa, llamado Etxebarria, en la comarca de Lea Artibai.

La última realización del propio matrimonio vasco a la antigua usanza se hizo el año 1942, siendo sus protagonistas Oregi Maillea Paula, de 64 años, y Baskaran Etxebarrieta Txomin, de 65 años, que viven en el caserío Basabe («Rubixonekue»).

Esta representación tuvo por objeto primordial dar una noticia, lo más exacta posible, del matrimonio vasco a la antigua usanza. La información ha sido facilitada preferentemente por seis personas del pueblo a quienes va dedicado el presente trabajo. Y la realización ha corrido a cargo de la juventud, con una participación del pueblo entero.

En qué consistió esta representación del matrimonio vasco a la antigua usanza?

En un recorrido de los principales puntos del pueblo con la dote matrimonial. En total tomaron parte en la comitiva 53 personas, jóvenes casi en su totalidad, ataviadas a la antigua usanza y en este orden: lanzacoheteros (2), yunteros y sus ayudantes (6), los esposados (2), el cura, el juez y esposa de éste (3), las dos madres (2), portacesteros (11), la charanga (3), burreros (2), cabrero (1), portadores de cuadros y espejos (8) y un grupo de jóvenes de ambos sexos (13). Aparte hubo dos carros tirados por dos vacas cada uno de ellos, dos burros, una cabra y dos cabritos, una clueca y cinco polluelos y dos tórtolas. El total de los objetos diferentes que completaban la dote, era de alrededor de 70 con más de 180 unidades. El recorrido finalizó en el frontón donde la dote entera quedó en constante exposición para los asistentes, y hubo una lectura explicativa del acontecimiento representado. Unos versos leídos sobre el tema y unas danzas populares pusieron punto final a esta fiesta popular.

Por el recuerdo revivimos lo pasado, lo ya en desuso. Y el pasado revivido refuerza lo presente. Mas esta pregunta le formulo, querido lector: ¿qué pasa y qué dura?

«ARRIOTEA» OU LA REPRESENTATION DU MARIAGE BASQUE
À L'ANCIENNE COÛTUME DANS LE VILLAGE D'ETXEBARRIA
(BISCAYE)

Le 8 juin 1977, à l'occasion de la fête annuelle «Gazteen Eguna» ou jour de la jeunesse du village, une représentation du mariage basque à l'ancienne coûtume eût lieu dans le petit village biscayen et limitrophe avec le Guipuzcoa, dénommé Etxebarria, dans la région de Lea Artibai.

La dernière représentation de ce mariage basque se fit en 1942, ses protagonistes étant Oregi Maillea Paula de 64 ans et Baskaran Etxebarrieta Txomin de 65 ans, qui habitent dans le domaine Basabe («Rubixonekue»).

Cette représentation eût par objet principal de donner une information, la plus exacte possible, du mariage basque à l'ancienne coûtume. L'information a été donnée par six personnes du village auxquelles est dédié le présent travail. La réalisation incombait à la jeunesse, avec la participation de tout le village.

Comment s'est déroulée cette représentation du mariage basque?

On a parcouru les points les plus importants du village avec la dot. Un total de 53 personnes participaient au cortège, composé en grand partie de jeunes, vêtus selon la coûtume et défilant dans l'ordre suivant: lance-fusées (2), les laboureurs et adjudants (6), les mariés (2), le prêtre, le juge avec son épouse (3), les deux mères (2), les porte-vanniers (11), la fanfare (3), les aniers (2), les chevriers (1), les porteurs des tableaux et les porteurs des glaces (8) et un groupe de jeunes des deux sexes (13). En outre, il y eût deux charrettes tirées par des vaches, deux ânes, une chèvre et deux chevreaux, une couveuse avec cinq petits poulets et deux torterelles. Le total des objets différents qui complétaient la dot était à peu près de 70 avec plus de 180 unités. Le parcours finit dans le fronton où la dot resta exposée devant les assistants, et il y eût une lecture explicative de l'événement représenté. Des vers lus sur le thème et des danses populaires mirent un point final à cette fête populaire.

Avec le souvenir nous revivons le passé, ce qui était tombé en désuétude. Et le passé revécu renforce le présent. Mais cette question je vous pose à vous, cher lecteur; quelle est la chose qui passe et celle qui dure?